

Jose Pagaldai Inñurategi

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1930-2009)*

Aurkibidea

Biografia



Bolibar auzoko Pagaldai baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama auzo bereko Jausoro baserrikoa. Hamaika anai-arrebatatik hamargarrena, bere gurasoak etxe lanetan ibiltzen ziren. 6 urterekin auzoko eskolan hasi zen eta bertan egon zen 13 urtera arte. Gero Eskoriatzara joan zen ikastera eta bi urte egin zituen Hermano Luis Mujikan. 20 urterekin fabrika sartu arte etxean egon zen bertako lanak egiten.

Zintak

ESK-028

- **Proiektua:** Eskoriatzako argazki fondoaren dokumentazioa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Parra, Leire
- **Data:** 2005-01-01
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** CD
- **Kodifikatzailea:** Trojaola, Larraitx
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Bolibarko Pagaldai baserriko semea

- **Erref:** ESK-028/002
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:00:11. **Bukatu:** 00:02:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bolibarren jaio zen Pagaldai baserrian. Hamaika anai-arrebatatik hamargarrena, bere gurasoak etxe lanetan ibiltzen ziren. Sei urterekin auzoko eskolan hasi zen eta bertan egon zen 13 urtera arte. Gero Eskoriatzara joan zen ikastera eta bi urte egin zituen Hermano Luis Mujikan. 20 urterekin fabrika sartu arte etxean egon zen bertako lanak egiten. Gurasoak zaintzen zituelako soldadutzatik libratu zen.</p>

Transkripzioa

- Joxe, zu nun jaixo ziñen?
- Bolibarren. Nire baserriko etxiek be Pagaldai dauko, abizena be Pagaldai eta baserriak be Pagaldai.
- Baserrian bertan jaixo ziñen?
- Bai.
- Eta zure aittak eta amak zelan zaukien izena?
- Luis eta Matea. Luis bertako Pagaldaikue zan eta Matea Jausorokue, Iñurrategi.
- Eta zure aitta eta amak ze eitten zauien, zertan dediketan zien?
- Ba etxe-lanetan ibiltten zien etxien. Aitta faten zan, iketza eitten euan urtien apur bat, dirue nunbaittetik biher, eta amak ba eitten auen soluen lana, etxien, janarixek, seme-alabak hazi. Askotan zesto baten hartu eta titixa emuteko solo ezkiñen apur bat eukiko gindduen, eta...
- Asko ziñeten, ez? Zenbat esan dostazu?
- Hamaika, ni hamargarrena nitzen.
- Joe, pilla bat. Eta etxien zelan konpontzen ziñeten, ondo? Zelan zan zure etxia? Haundia edo...
- Oso haundia zan. Lehenau bizitza bikue zan hori. Pagaldai eta Pagaldai-aldekua. Eta Pagaldaittik fan zan Simon Otxoa, soldau fan zan denporan Tailluanera pasau zien, eta Tailluanekuak fan zien Arabara. Pagaldaiñena baserria aldatz haundixe eta nekosue zan. Han oillaskuek eta gangar edarrakin egoten zien, baiña dirua hartzeko saldu ein bihar izeten auen.
- Eta jateko bai, ez?

- Jateko be bai. Gose-goseik ni ez naz akordetan gose-goseik, baiña gehitxuau jango gaukiela askotan geldittu naiz.

- Bueno, hori leku guztietan pasatzen da. Eta zu txikiña ziñenien han bizi ziñen Bolibarren, eta eskolara faten ziñen...

- Eskolara, Bolibarrera. Ni ekingo nintzen eskolara xei urtekin edo. Eta han ibilli nintzen hamahiru urte arte. Gero Eskoriatzan ibilli nintzen, Hermano Luis Mugica, liburuen han daukat, urte bi ein nittuan Eskoriatzan hemen. Eta gero geratu giñen, etxien geldittu nintzen, fabrikara hogei urte arte ez nintzen fan, anaia hil jaten eta bestie soldau fan zan eta idixekin eta danakin ibilli bihar izeten nintzen aitta-amari laguntzeko. Ni neu soldauzkatik librau in nintzen, anaie ezkondata auen, eta ein ustien papalak neuk aitta eta ama jasotzen nittuela eta hortan librau nintzen soldauzkatik.

2. Umeak jolas eta jolas

- **Erref:** ESK-028/003
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:02:57. **Bukatu:** 00:04:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan asko jolasten zuten: Aste Santuetan txirikiletan, banderaka, gorde-gordeka, intxaurrekin potxoloka, txapan...

Transkripzioa

-Zu txikiñetatik gogoratzen zara zertara jolasten zenuten han?

-Ba asko ibiltten giñen gu, txirikilletan be bai aste santuetan.

-Zer da hori?

-Holako egur mehetxo batzuk izeten die eta gero makilla bat; haregaz jo, eta altzora hartu ezker ez dakit zenbat tanto hartzen zittuen harek, hamar tanto edo hamabost edo, ez dakit zenbat zan hartzen zittuenak. Eta torria euen, eta torrera botata sartzen bazauen orduen be tantuek emuten zien. Eta gero banderaka be bai, gorde-gordeka be bai; potxoloka be bai zerakin, intxaurrekin eta be. Potxolotxo bat ifiñi eta intxaurrekin bota, barrura sartzen bazauen eta bestiek botaten ez bazittuen, intxaur danak. Gero eitten gauen txapan be bai, txakur haundixak, horrek txakur haundixok, lehenao baltz haundixak zien. Hormie jo, eta eskua arrabetien barruan hurrengo txanpona geraketan bazan, ha zuretako.

-Hori banderaka zela zan?

-Bandera egur bat sartzen zan. Torria, salidatik hogei bat metrora edo, eta zuk urteten bazauen, korrika joan, ha makillia, banderia hartu, eta handikaldeko porterixa ondora aillegetan bazintzen iñork heldu aurretik, irabazi itten zauen. Eta baten batek atzetik heldu eitten baotsun ba ia galdu itten zauen.

3. Garai bateko Bolibar auzoaren argazkia

- **Erref:** ESK-028/004
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Ume dezente ziren auzoan. Bera jaio zen urtean beste bost ume jaio ziren eta hurrengo urtean hamabi bat. Bolibarrek 32 etxe zituen, sakristia eta abade-etxea. Auzo zabala, oso paraje (leku) ederra zen pagadiz eta gaztainadiz inguratuta. Irailean, San Miguel baino lehenago, ikatzak agertzen ziren auzoko bazter guztietan.

Transkripzioa

- Zuek ume asko zazen han Bolibarren zu txikiña ziñanian?
- Gu bastante, gu kintuek Bolibarren izen giñen bost bat edo. Bolibarren egoten zien, gure hurrengokuek izen zien, dozena bat inguru izen zien. Bolibarrek auken etxiek hogeta hamabi, sakristaue eta abaria. Gero batzuk galdu ein die, gero beste batzuk barrixak be ein die.
- Asko die hogeta hamabi.
- Bolibar bera da auzue da oso zabala. Bestela Bolibarrek hola pagodixek eta begitute, oiñ asko piñu sartuta dagoz, lehenao gaztaiñixek be, gaztaiñak be asko azen. Eta zan oso... parajie, ez dakit nik hola mendire eta fotografixak atarateko ta oso politta izeten zan. Eta setienbrien-eta iketzak baztar guztietan, San Migelak aurretuxen, san Migelak hogeta beratzixan zela izeten zien, orduko ia bukatzie gure izeten zan.

4. Baserrian lana ugari; ikatza nola egiten zen

- **Erref:** ESK-028/005
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:05:16. **Bukatu:** 00:08:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

<p>Baserrian ez zen inoiz lanik falta; urte guztian zegoen, sasoian-sasoiko, zerbait egiteko: abuztuan hasi eta iraila bukaera arte ikatza egin, gero ira (garoa) batu, ondoren garia erein, neguan artoak garandu (aletu)... Pasarte honetan batez ere ikatza egiteko prozesua azaltzen da. Telefono gabeko garaian, baserrietako familiek lanerako laguntza behar zutenean izara zuri bat jartzen zuten seinale gisa.</p>

Transkripzioa

- Ikatza eitten zan, txondorretan? Kontau hori. Zelan zan txondorrana?
- Txondorra izeten zan, egurra lelengo [...] zan eta kuadruan uekue ataraten jakon eta egurrak lelengo senduek barruan ipintten zien eta gero mehiakin, eta gero zohixekin edo orbelaz tapetan zan eta gero lurrekin. Eta gero goittik behera sartzen jakon brasia. Egun baten edo han brasan [laguntzen?] jakon eta gero punteraiño hori kuadruoi bete eitten zan. Eta gero esaten zan "puntie hartu jok txondorrak". Eta txondorra hasten zan lanien, goittik behera hasten zan. Eta txondorrak egurrek senduek eta euki

ezkero ba uekuoi gehixao eitten auen, eta orduen ba betegarrixa emon bihar izeten jakon; apur bat zabaldu, egur barriek txikiñek sartu, atzera tapau eta [...] beheraka-beheraka, eta txondorrek lana gehixao eitten auen freskurakin. Gabetan lanak, udaan eta deskidau ezkero [erretan?] zittuen gehixao Eta euri-zaparrara bat eittenn euenien be lana hobeto eitten euen txondorrek, bero lar haundixakin barik.

-Eta han norbait egon bihar zan beti zaintzen?

-Bai. Txabola bat eitten zan, eta txapakin edo. Askotan guri pasetan jakune, bueno, gaur denpora ona jak eta txabolia ondo bukatu barik igual, eta gero deskidau ezkero hanketara edo burura tantakia. Eta hamen bihar izeten zan ba segun, txondor batzuk biha izeten zittuen hogeiegun edo martxan igual, hogeiegun, batzuk gehixao be bai, edo gutxiao, segun egurre sendue edo zela zan. Txabolan be bai. Eta gabien be begire fan bihar izeten zan. Hiru txondor edo lau bazaukotzun be, ba zu batzuetan fan bihar izeten zauen senda batzutik eta bueno.

-Hori eitten zan san Migeletan? Ala negu partian?

-Hori lelengo hasten zan, sasoe honetarako egurre botata egoten zan eta preparauaz faten zan, etxeko lanak eñaz eta hola; preparauaz, preparauaz faten zan, eta agostuen atzenetan, setienbrien lelengotan hasi txondorrek eitten eta hortxe hillabeten barruen hortxe eitten zan. Baiña etxeko lanak amak edo etxian azen emakumak eñaz, eta gizona-eta basuen hori eñaz. Gero handik, hori bukatukuan izeten zan, idie esate-utsau guk, hor behaldien ba garue; harek erretirau eta ein bihar izeten zien. Eta gero handik etorten zan ba gari-ereittiek eta haren ostien.

-Urte osuan lana zaukatzen zuek.

-Gero neguen artuek karandu eta...

-Artuek (k)arantzen egon zare zu? Gero artuak batu eitten zan eta eitten zan arto-jorran...

-Eta aparte eitten zan, lehenau telefonoik eta mobillik eta holakoik ez auen, Bolibartik, gure etxetik, Pagaldaittik Agiña eta Tailluena eta beste batzuk ikusten zien, eta zien terrenue, lurre gertatekue, gu enteretan giñen izera zuriren bat han ipintzen zana: "Atailluenien ipiñi daue izeria", edo Agiñan edo Altzarten, eta faten giñen laguntzen. Eta guk be gertatzen gauenien iguala eitten gauen. Zeozer seiñala bat ifiñi.

5. Erlojurik gabe, nola jakin ordua?

- **Erref:** ESK-028/006
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:09:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Zer ordu zen jakiteko inguruko baserrietan gerizpea noraino heltzen zen begiratzen zuten. Eguerdiko hamabietan auzoko elizako kanpaiak jotzen zuen.

Transkripzioa

Eta askotan "ze ordu ete dok" eta guk begiraketan gauen Ataillunera, "bentanaraiño aillegau dok eguzkixa, handik keizpia, hamabixak dittuk", hola ibiltten giñen. Gero hamabixetan eta joten auen, kanpaiak joten auen. Oiñ automatikue ifiñitta dau Bolibarren be bertan joteko, baiña lehenau hamabixak ordue adelantau zani, ordu batetan joten zan hamabixak. "Hamabi zaharrak, hamabi barrixak dittuk". Bai. Oiñ ordu bi [harek

kontatzen] eguzkittik, baiña lehenao egon zan zati baten ordubete adelantaute. Ordu batetan joten auen hamabixak. Guretzako bazkaitara fateko, eta orduen faten giñen bazkaitara.

6. Aldamenekoen fruituak gozoagoak omen

- **Erref:** ESK-028/007
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:09:12. **Bukatu:** 00:09:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

Gurasoak siestan zeudela, umeak aldamenekoen arboletako fruituak (gereziak, okaranak) jatera joaten ziren. Ondokoen fruituak gozoagoak omen ziren

Transkripzioa

-Eta aitta ta ama siestan ezen denporan, guk keixa denporan mutikuek, beziñuenak gozuauak izeten zien eta [...] faten giñen.
-Gereziak edo...?
-Gereizak, okanak eta danak.
-Beste zuhaitzetara faten ziñeten?
-Askotan. Gozuauek izeten zien.
-Bai, pasetan da.

7. Garia; nola moztu, batu eta jo

- **Erref:** ESK-028/008
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:09:38. **Bukatu:** 00:10:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Bere gurasoak euren etxetik kanpo hasten ziren garia moztzen. Garia lehenago heltzen zen aldera (Garagartzara) joaten ziren "egunek irabazten". Hangoak bukatutakoan, Garagartzakoak euren etxera joaten ziren laguntzera; txandan ibiltzen ziren. Behin garia moztuta metak egiten ziren, eta, gero, larrainak idiekin edo behiekin. Abereen bekotzak lastora ez jausteko ontzi bat erabiltzen zen.</p>

Transkripzioa

-Gariarena eitten zenuten etxe aurrian, garia batzen zanian...
-Bai. Gari-irabazten be faten zien, ieteixakin ebaten zan lehenao, gero segakin be bai eta makiñakin be bai. Baiña gurien aittak eta amak... ni neu kanpora be fanda ez nau, baiña hasten zien hortik Garagartza aldetik edo, "egunek irabazten", han heldute egoten zien garixak, eta gero gurera etorten zien hanguak, ia hanguak bukatute euan eta gurera... eta txandan ibiltzen zan gauzia. Gero metak eitten zien, metie zerakin, eta gero larriñe idiekin edo behiekin edo. Eta bekotza itten euenien katxarro bat ifintten jakon bekotzak ez daixen hazi, zera, lastotara edo.

-Eta gero auzuetan eta holan, ze auzolan eitten zan Bolibarren adibidez, ze hori gariarena ez zan iten danok batera, edo etxe bakoitzak eitten zauen beria?

-Gero makiñie etorri zanien lagundu eitten jakon bata-bestiai, baiña bestela ganauekin eta ebillenien ba orduan... Ebaten eta bai, ebaten eta laguntzen zan, baiña bestela bakotxak berak.

8. Auzolan berezia: Sasi bisittie

- **Erref:** ESK-028/009
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:10:42. **Bukatu:** 00:11:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Auzolana oro har errespetu handiz egiten bazen ere, bazen berezia zen lan bat. Egun bat jartzen zen baserri bakoitzak zituen lurren inguruak garbitzeko. Ondoren "sasi bisittie" egiten zen, hau da, udaleko ordezkariak auzoz auzo joaten ziren lurak behar bezala zeuden ikusteko. Gero bazkaria egiten zen.</p>

Transkripzioa

-Gero auzolanak izeten zien, errespetu haundixakin gaiñera, hor e, bestela be eitten zien, baiña medikuana-ta kaballuakin faten zan, eta egun bat ipintten zan noberan terreno parietan-eta obligaziñue egoten zan garbitzeko. Eta gero faten zan aiuntamentua, ni neu be fanda benau, aiuntamentua, alkatia [gengozela-ta], sasi-bisittia esaten jakon, auzorik auzo, aber ebaitte auken edo ondo ifinitte, garbittuta auzen edo.

-Zelan, sasi...?

-Sasi-bisittia. Sasixek-eta ebai-eta sendetan eta, lehenau egoten zan...

-Izen hori ipintzen jakon. Eta ze egunetan eitten zan?

-Hori uste dot eitten zala oktubre lelengo inguruetan. Uste dot hola zala. Eta gero eitten zan, aiuntamentue, faten zan alkatiakin eta bazkaixa egoten zan.

-Hantxe auzuan bertan?

-Ez, Gatzaga-gaiñen, edo bai.

9. Gazte garaiko asteburuak; larunbatean lan eta igandean dantza

- **Erref:** ESK-028/012
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:36. **Bukatu:** 00:02:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Larunbata laneguna zen eta garai baten igandetan ere lan egiten zutenez, ez ziren auzotik Eskoriatzara jaisten. Fabrikan lanean hasi zenean larunbata laneguna izan arren, afari-merienda egiten zuten. Igandetan, dantza egoten zen Eskoriatzako plazan. Neskatan nola ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Astebukaeretan, zapatu eta domeketan zer eitten zenuten?

-Zapatuak lan. Eta domeketan be gari-ebateko denporan ez giñen bajetan igual. Askotan hantxe ibiltzen giñen. Zapatuetan eta pentsau bez. Zapatuetan fabrikan... batzen giñenien edo, zapatuan merixendatxon bat gabien edo itten giñuen.

-Eta domekan eukitzen zenuten romerixarik edo?

-Bai, hemen Eskoriatzan plazan. Musikia jotzen auen, hiru bat pieza jotzen zittuen, eta gero neskan batzukin lagun eitten bazitzen; lehenau neskak eta ez auen pagetan, baiña bakoitzak mutilok neskai pagau, tabernara fan eta kafetxo bat hartu eta [...] pasiotxo bat eiñ eta gero atzera plazara fan eta dantzan eiñ, eta neskia apur bat gustetan bajatzun ba alegiñek itten [...] zuk berai laguntzeko. Eta berai gustetan ez bajakon ba ospa aguro igual eitten auen...

10. Kintoak Santa Ageda eskean

- **Erref:** ESK-028/013
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:04:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Kintoak Santa Ageda eskean ibiltzen ziren. Bezperan auzoak batzen zituzten eta egunean bertan herriko kaleak. Kaletarrak eta baserritarrak aparte ibiltzen ziren.

Transkripzioa

-Zu gaztie ziñanien zenbat urtekin ospatzen da, bueno, Santa Agedako... Kintuen eguna?

-Hamazortzi, hemeretzi urte, hoge, hortxe. Oin kintuek urte bi edo hiru edo gaztiaeuk [etozen?]. Lehenau nausitxuaeuk faten zien. Hogeta bat urte inguru, edo hogeta bi edo holan faten zan soldau. Oin urte bi edo adelantau ein daue. Adelantau, gaztiaeuk joaten die, kintuek gaztiaeuk ibiltten die lehen baiño. Lehenau gu auzuetan auzue batzen giñuan guk; kaletarrakin aparte ibiltzen giñan. Oin danok batera eitten daue, baiña gu faten gintzen Mendiolara, Arkarazora eta horra. Eta gero Eskoriatzara be etorten gintzen, Eskoriatzakuak be faten zien Bolibarrera-ta. Eta kaletarrak hasten bazien kalebarrenetik, gu kalegoixenetik hasten giñan. Batera ibili barik. Eta gero parte itten gauen Izibill edo, Izibill baserri bat, etxe bat zan, lehenauko aguazillen ta zera, oiñurrengo aguazillanak, fan zanak ez, aurrekue Toribio, Toribio Zubia, haren etxia preparaten oskun ba...

-Zubia, badakit, horren anaia; Miren Zubian aittajauna. Eta zelan, barkatu, moztu ein dotsutela...

-Han eitten gittuen guk bazkaixek eta afaixek, eta eitten gittuen batzen

geuen gauzakin eta.

-Eta zelan zan egun hori? Goixian elkartzen ziñaten...

-Gu ba bezperan batzen gauen auzuak, eta bertan egunien kaliak. Dirue edo batzen zan. Lehenau baserrixetan eta emuten zittuen dozena bat arrautza igual, eta txorixuek eta gauzak; janak-eta asko batzen gittuen.

-Eta gero etxe horretan jana egin, ez?

-Jana ein. Eta bezperan be afaitten gauen, gero egunien bazkaldu, afaldu be bai, eta gero sobretan bazan, hurrengo domekan edo atzera eitten gauen.

11. Soldadu joan aurreko kintoen ospakizunak

- **Erref:** ESK-028/015
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza joan aurretik kintoek bi egun ospatzen zituzten: alistamentu eguna eta kintoak neurtu eta pisatzen zituzten eguna. Alistamentu egunean bazkaria egin zuten tabernan.</p>

12. Urdelardero eguna

- **Erref:** ESK-028/017
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:33. **Bukatu:** 00:08:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>Urdelardero eguna Bolibarren, eskolan, antolatzen zuten. Bezperan inguruko auzoetara (Mendiola, Arkarazo...) joaten ziren eskean; orduan ez zegoen auzoetatik Eskoriatzara, kalera, eskean joateko ohiturarik. Mendiolan gertatutako pasadizoa.</p>

13. Espainiako bandera eta 'Cara al Sol'a Bolibarreko eskolan

- **Erref:** ESK-028/018
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bolibarreko eskolara sartzerakoan Espainiako bandera jartzen zen kanpoan eta Cara al Sol abesten zuten. Eskola denak gaztelaniaz ematen ziren baina dotrinan euskara pixka bat erabiltzen zen.</p>

14. Bolibarreko abadea: don Kruz

- **Erref:** ESK-028/021
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

<p>1945eko azaroan don Kruz abadea joan zen Bolibarrera. Aurretik don Miguel egon zen. Atxorrotzeko erromeria.</p>

15. Auzolana: ardoa udalak eta ogitartekoa norberak.

- **Erref:** ESK-028/023
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Garai hartan auzolan asko egiten zen. Udalak ardoa ematen zien auzolanera joaten ziren guztiei. Behiak edo idiak eramaten zituztenei litro bat eta gainontzekoei kuartilua (litro erdi). Ogitarrek norberak etxetik eramaten zuen. Lanak amaitu eta gero ospatu egiten zen.</p>

16. Eskoriatza "argitzen" zuten errota

- **Erref:** ESK-028/024
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:04:45. **Bukatu:** 00:06:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Bolibarren "Argi errota de Bolibar" zegoen. Auzoan orduan 32 bizilagun zeuden eta 20 inguru bertako bazkideak ziren. Errota zen eta argia emateko balio zuen ere. Bolibartik gorago beste argi errota bat zegoen; potentzia gehiago zuenez fabriketara eta kaleetara argia emateko erabiltzen zen. Bolibarkoek argia ematen zieten Mendiolkoei. Andra Mari bigarrean Bolibarko bidean zegoen depositua garbitzen zen. Garbitu ondoren bazkaria egiten zen eta jendea epel-epel eginda joaten zen etxera. Eskoriatzan bazegoen "Moliñerona" deitzen zen beste argi errota bat, honek Gaztañadi aldera bidaltzen zuen argia.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-28

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com